


Gune interesgarriak / Lugares de interés



Errezil



Historia laburra / Breve historia



Errezil izenaren jatorria ezezaguna den arren, hainbat uste daude. Zabaldueña, baskoiek eta erromatarrek Zelatunen izandako guda dute oinarri. Kondairaren arabera, erromatarren erasoak zirela eta, Gipuzkoako Hernio mendi tontorraren ondoko zelai batean, Zelatunen, ezkutatu ziren baskoiak, eta erromatar ugari hil omen zituzten. Hortik etor daiteke herriaren izena; Errezil, Errez hil.

Cuenta la leyenda que el nombre de Errezil surgió en una guerra que los vascones y los romanos tuvieron en Zelatun. Fue tan alta la cantidad de personas que murieron, que los lugareños y lugareñas señalaron el lugar como "errez hil" = morir fácil.

Hala ere, herriari buruzko lehenbiziko aipamena 1027 urtean aurkitzen da, zehazki, Nafarroako Antso III.a Gartzes Nagusia erregeak Errezil aipatu zuen Iruñeko Gotzain-hiriaren mugapeari buruzko dokumentuan. Aurrerago, 1397an, Gipuzkoako Ermandadeko Ordenantzetan Aia, Golaz, Bidania, Errezil eta Beizamak osatzen zuten Salazko Alkatetza Nagusia aipatzen zen. Gipuzkoako hiru Alkatetza Nagusietako bat zen Saiaz.

En lo que respecta a la creación de la localidad, y aunque el primer documento sobre Errezil data del año 1027, la localidad se fundó en 1563.



“ Errezil izenaren jatorria, ezezaguna izan arren, baskoi eta erromatarren artean Zelatunen izandako guda dute oinarri. / Cuenta la leyenda que el nombre de Errezil surgió en una guerra que los vascones y los romanos tuvieron en Zelatun.

Udalerrri Independienteak (1563a geroztik)

Zestoako 1563ko batzar nagusietan, erregeari herri bakoitzak bere alkatea izendatu ahal izan zezan eskatu zioten. Erregeak baietz erantzun zion errege horri, eta, horrenbestez, udalerrri independenteak bilakatu ziren.

Deskribapen geografikoa / Descripción geográfica

Hernio mendiaren magalean kokatzen den udalerrria da Errezil, eta Zestoa, Aia, Asteasu, Larraul, Bidegoian, Albiztur, Beizama eta Azpeitia herriak ditu mugakide. Herrigunea, harriz egindako etxe multzoz osatuta dago eta hainbat eraikin interesgarri ditu; San Martingo parrokia-eliza edota harlanduzko iturria, besteak beste. Arzallus, Erdoizta, Ezama, Ibarbia, Letea eta Argisain auzoekin osatzen da udalerrria.



Errezil se ubica en las faldas del monte Hernio, y tiene como localidades colindantes a Zestoa, Aia, Asteasu, Larraul, Bidegoian, Albiztur, Beizama y Azpeitia. Así mismo, sus barrios son Arzallus, Erdoizta, Ezama, Ibarbia, Letea y Argisain.

Biztanleria/ Población



Errezilgo biztanleriak beherakada nabarmena jasan zuen XX. mendearen bigarren erdialdean, 1.500 biztanle ingurutik 600 ingurura igaroz. Galera demografikoaren fenomeno honi lotuta, populazioaren zahartze nabarmena ageri zaigu, beste landa eremuko herrietan gertatzen ari den moduan. Hala ere, herri txikia izanagatik, herritar handiak eman ditu Errezilek. Hala nola, kultura, kirola zein gizarte arloan nabarmendutako errezildar ugari daude historian zehar.

Biztanleriaren bilakaera / Evolución de la población

